

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1361

33/2014 DEKRETUA, martxoaren 11koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluko kide bat kargutik kentzeko eta beste bat izendatzeko dena.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren urriaren 13ko 3/2011 Legearen bidez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua sortu zen, izaera administratiboko erakunde autonomo gisa; lege horren 7. artikulua xedatzen duenez, Administrazio Kontseilua aipatu erakundearen gobernu-organo goren da.

Bestalde, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartu ziren; estatutu horien 6.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, Administrazio Kontseilua honako kide hauek osatuko dute:

- a) Lehendakaria, enpleguaren arloan eskumena duen saileko titularra.
- b) Lehendakariordea, enpleguaren arloan eskumena duen sailburuordetzako titularra.
- c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia.
- d) Eusko Jaurlaritzak izendatu, eta, hala badagokio, kargutik kenduko dituen bi bokal, enpleguaren arloan eskumena duen sailak proposatuta.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten sindikatuen ordezkari bost bokal; zein aipatu sindikatuak aukeratuko dituzten eta Jaurlaritzak izendatu dekretu bidez.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten enpresaburuen elkarten ordezkari bost bokal, zein aipatu elkarteek aukeratuko dituzten eta Jaurlaritzak izendatuko dekretu bidez.

Azaroaren 29ko 253/2011 Dekretuaren bidez (2011-12-12ko EHAA, 233. zk.), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kideak izendatu ziren, betiere hura arautzen duen legean agindutakoarekin bat etorriaz.

2014ko otsailaren 24an, Confebask Euskal Enpresa Konfederazioak. bidalitako komunikazioa jaso zen, non haren Batzorde Eragilearen honako erabakiaren berri ematen baitzen: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakundeko autonomoaren Administrazio Kontseiluan aipatu konfederazioa ordezkari duten pertsonatako bat aldatzea; beraz, beharrezkoa da dagokion kargutik kentzea eta izendapena egitea.

Horrenbestez, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2014ko martxoaren 11n egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluan enpresaburuen elkarten ordezkari bost bokal duen kide hau kargutik kentzea:

Ordezko bokala:

– Juan Ramón Apezetxea Escudero jauna, Confebask Euskal Enpresa Konfederazioak izendatua.

2014ko martxoaren 21a, ostirala

2. artikulua.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluan enpresaburu en elkarleen ordezkari izango duen kide hau izendatzea:

Ordezko bokala:

– Nerea Zamacola Gárate andrea, Confebask Euskal Enpresa Konfederazioak izendatua.

3. artikulua.– Dekretu honek onartzen den egunetik izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko martxoaren 11n.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,

Ordezkoak eginez, Ogasun eta Finantzetako sailburua.

RICARDO GATZAGAETXEBARRIA BASTIDA.

(Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren hamaikagarren xedapen gehigarriaren arabera).